

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Zabalik dago ikastetxe publikoetan hobekuntza-lanak egiteko udal eta kontzejuei zuzendutako laguntza-deialdia

*Hezkuntza departamentuak 1.000.000 euro bideratuko ditu laguntza horietara; apirilaren 9ra bitartean eskatu daitezke*

Astelehena, 2018.eko martxoak 19

Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari orokorrak onartu du Udal eta Kontzejuek Haur eta Lehen Hezkuntzako nahiz Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hobekuntzak egin ahal izateko diru-laguntza deialdia. Eskariak apirilaren 9ra bitartean aurkeztu ahal izango dira. Hezkuntza departamentuak milioi 1 euro bideratuko du laguntza horietara, eta gehienez 60.000 euroko laguntzak izango dira.

Laguntza-deialdira eskaria egin dezakete ikastetxeen titulartasuna duten udal erakunde, udalerrri eta Kontzejuek. Presazko esku-hartzea eta ezinbestekoak diren lanak sartzen dira deialdian, baita indarrean dagoen segurtasun eta irisgarritasun araudira egokitzeko lanak ere. Lanak 2018an zehar egin beharko dira, baina 2017an zehar egindako presazkoak ere aurreikusten dira deialdian, beti ere udalak edo departamentuak hala izendatu badituzte lan horiek.

Gehienez ere 60.000 euroko laguntzak izango dira, ikastetxeko. Lanak gauzatzeko betekizun eta baremoak gaur bertan argitaratu dira [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](http://www.navarra.es).